

Hizkuntza gutxitu babestuen diskriminazioa

Eli Moral, Eba Gaminde,
Iñigo Urrutia eta Joseba
Iñaki Sobrino

Erabakizaleak taldeko kideak

Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), non estatuko botere judizialak bere zerbitzuak ematen dituen eta hizkuntza-koofizialtasun konstituzionala dagoen, Espainiako Justiziak bi premisa eraiki ditu, legearekiko berdintasun orokorrean oinarrituta bakar-bakarrik. Premisa horiek hizkuntza-koofizialtasuna edukirik gabe uzten ari dira. Azken epaietako batek euskararen derrigortasun-ehunekoa baliogabetu du, Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) 77 administrari lanpostuko EPEn.

Epai horren lehenengo premisa da EAEn gutxiengo elebakar erdalduna diskriminatua dagoela eta babes berezia merezi duela. Eta bigarrena, aurrekoaren ondorioz, euskararen —hizkuntza gutxituaren— benetako koofizialtasun eraginkorrerantz aurrera egiteko euskal sektore publikoak ezarritako hizkuntza-politiken diskriminazio positiboa debekatutako diskriminazioa dela, gutxiengo elebakar erdaldun hori diskriminatzeagatik.

Azter ditzagun bi premisa judizialak, ikusteko ez dutela gainditzin gutxiengoko kontrastea, ez konstituzionaltasun-blokeari begira, ezta gutxiengo nazionalen eta Europako hizkuntza gutxituen Europa zein nazioarteko tresna juridikoei dagokienez ere.

Batetik, epaiak ez du inolako arrazoi ez frogarik aipatzen EAEko komunitate elebakar erdaldunak Espainiako Konstituzioaren 14 artikulua bigarren zatiko babes berezia merezi duela bidezkozteko, alegia, zenbait ezaugarri susmagarritan oinarritutako diskriminazioa debekatzen duen zatiko babesa, historian barrena komunitate elebidunaren edo euskal erakundearen diskriminazio sistematikoa jasateagatik.

EAEko gutxiengo elebakar erdaldunaren babesari buruzko zentzuga-bekeria juridiko horren norainokoa ulertzeko, ezinbestekoa da hauxe azpimarratzea: babes berezia duten gutxiengo onargarri bakarrak estatuan daudenak dira, ez autonomia erkidegoetan, instantziako salak epaiaren bidez bere erara eta modu arbitrario batean proiektatu nahi izan duen bezala. Ergo, babes berezia merezi duen

nazio hizkuntza-gutxiengorik izatekotan, estatuaren esparru geografikoan aurkitu daitezkeenak izango lirateke —euskalduna, besteak beste—, eta ez EAEko komunitate elebakar erdalduna, estatuaren esparruan zeharo hegemonikoa dena, ezbairik gabe (NBEko Giza Eskubideen Batzordearen Irizpena, John Ballantyne eta beste batzuk v. Kanadaren kasuan, 385/1989 Komunikazioa, U.N. Doc. CCPR/C/47/D/385/1989 (1993).

Bestetik, Zuzenbidearen iturriei begira, ezin uler daiteke nola printzipioak erabiliz (proportzionaltasun-printzipioa), epaiak behin eta berriro urratzen dituen konstituzionaltasun-bloketik eratorritako arauak, hizkuntza-koofizialtasuna eta Europako zein nazioarteko tresnetan jasotako arauak bloke horrexetatik datozenen. Araua bakarrik bazter daiteke hierarkia bereko edo goragoko beste arau baten ondorioz, eta printzipioak aplikatzen dira, besteak beste, maila bereko eskubide kontrajarriak neurtzeko. Kasu honetan ez dago horrelako gatazkarik, bereziki babestu beharreko hizkuntza gutxitu eta gutxiengo nazional bakarra komunitate elebidun euskalduna delako.

Horrenbestez, ez dago maila bereko eskubideen arteko gatazkarik, juridikoki ez dagoelako babes berezia edo tratu juridiko desberdina merezi duen gutxiengo elebakar erdaldun bat. Baina, horrez gain, oinarritzko eskubideak babesteko tekniken ikuspegitik —alegia, ustez urratutako berdintasun-eskubidearen ikuspegitik—, esan behar da, teknika horien aplikatasuna ezjakintasunaren paradigma dela epaia, ez dituelako behar bezala aplikatzen ez legearekiko berdintasun orokorraren eskubideak eska dezakeen arrazoizkotasun-testa (EK Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua lehenengo zatia), ezta zenbait ezaugarri susmagarritan oinarritutako diskriminazioaren debekuak eskatutako proportzionaltasun-testa ere (EKren 14. artikulua bigarren zatia). Izan ere, epaiak ahaleginik ere ez du egin BFaren hizkuntza-politika baliogabetuak EKren 14. artikuluko lehenengo ez bigarren zatiaren arabera ikertzeko.

Gutxi balitz, epaiak ez du ondo ulertu tratu juridiko desberdin orok ez dakarrela, ezinbestean, debekatutako diskriminazio-politika; ziurrenik instantziako salak erabaki duelako neurrien legitimitatea eta arrazoizkotasuna bidezkozteko araugintza-estandar moduan ez aplikatzea koofizialtasuna eratortzen duen konstituzionalta-

sun-blokea (EKren lehen xedapen gehigarria, Euskal Autonomia Estatuaren 6. artikulua, eta koofizialtasuna garatzen duten gainerako arau autonomikoak), ezta gutxiengo nazionalen eta Europako hizkuntza gutxituen kontzeptuak ezartzen dituzten Europako eta nazioarteko esparruak ere.

Argudio horiek guztiek bidezkozten dute orain epaiak deuseztatu dituen neurri orokorren legitimitatea eta arrazoizkotasuna; finean, euren legezkotasuna. Horrexegatik, behean sinatzen dugunok ez dugu uste legearen kontrakoa denik euskal erakundeek, ia 50 urteko koofizialtasunaren ondoren, neurri legitimoak, beharrezkoak eta eraginkorrak ezartzea, hizkuntzen arteko benetako koofizialtasun eraginkorrerantz aurrera egiteko, baita estatuan eta European euskara hizkuntza gutxitu gisa bereziki babesteko ere. Zentzugabekeria juridikoa da EAEko erakundeei hizkuntzagatiko diskriminazioa aurpegiratzea, hain zuzen ere haien betebeharrak juridikoa denean. Noiztik da diskriminatzailea betebeharrak juridiko bat betetzea?

Kontrara, bi hizkuntzen arteko ia mende erdiko berdintasun juridikoaren ondoren, ez da legitimoa, ez proportzionala, ez beharrezkoa, ez egokia, ez arrazoizkoa, euskal herritarrek ezinbestean jasan behar izatea bi hizkuntza ofizialean zerbitzuak emateko gai ez den funtzionarioa, hain zuzen ere, euskal zerbitzu publikoetan bete beharreko gastu-eraginkortasunaren antitesia elebakartasuna delako.

Hortaz, egon badago baliogabetutako hizkuntza-politika zehatzak defendatzeko oinarri juridikoa. Baina, estatuko botere judizialean nagusi den elebakartasun mentala dela-eta nahikoa ez balitz, orduan, euskal botere legile autonomikoaren jaun-andre txit agurgarriok, aldarrikapen eta sendotze prozesu historiko luze eta konplexu bati esker lortutako koofizialtasunaren bermatzaile zaretan heinean, eta euskara Herri honen hizkuntza eta babes berezia merezi duena izanik, arau-paradigma aldatzearen alde egin beharko duzue, nazio txiki baina esanguratsu honen hizkuntzari lege-babes hobea emateko. ●

Atxikimendua eman dute:

Alfonso Atela, Arantza Isasmendi, Bea Ilardia, Bego Atxa, Endika Garai, Idoia Gutierrez, Iñigo Santxo, Irantzu Perello, Jon Artatxo, Josu Garai, Jo-
xean Lozano, Mirian Campos, Ramon Zabala, Sergey Aresti, Xabi Saiz De la Maza eta Ziortza Arrien.

Beldurra



JIRA

Oihana Arana

Mahaitxo baten bueltan lagun batzuk elkartu, argi txiki bat piztu eta «pentsatu gaur egungo zure biziari buruz kartak nahasten dituzun bitartean». Kartak banaka aukeratu eta mahaitxoaren gainean jartzen ditugu ahalik eta goxoen. Arkanoak agertzen hasten direnean, normalean ez dugu ezer ulertzen; bestetan, barrez lehertzeko baliatzen dugu momentua; gehienetan, liburuxka batetik azalpenak ozen irakurri, bete-betean guri buruz ari dela iruditzen eta isil-isilik gelditzen gara. Asmatuko zenuten honezkero, baina bai, zaletasun berri bat daukat: tarota.

Tontakeria bat irudituko zaizue askori, baina katarsi garaietan bi aukera daude: helduleku berriak kontzienteki topatzea edo gatazka guztiei entzungor egitea. Eta niri amorru handia ematen dit bigarren bidea urratzen duen jendeak.

Sinesmenak nahierara ulertu eta norberarentzako baliagarri bihurtzeki buruz berbetan hasten naizenean urduritu egiten da jendea. Ez zait hain larria iruditzen kartak bota eta horren aitzakian norbere biziari buruzko elkarrizketa sakonak edukitzea. Ez ote da hori izango beldurtzen gaituena... ●

Mazar Dara



BIRA

Itxaro Borda

Afganistango ekialdeko partean, Jalalabad hiri nagusiaren inguruetan, Mazar Daran, milaka jenderen biziak hartu dituen lur ikara indartsu bat izan da iragan agorri bukaeran. Trumpen eta Bayrouren ziminkeria politikoen artean, ez du berri horrek mereziko zuen oihartzunik ukan. Talibanek gobernatzen duten herrialde horretan, xaria zorrotzaren arabera, emazteak etxeetara kondenatu zituzte. Seismoaren ondotik, lege horren izenean, gizonak eta emazteak bereizi dira, artamendurik gabe gelditzen direla emakumeak eta haurrak: egiazko tragedia...

Erlijioa lehenesten denean, sokorriak eta mediku zaintzak ematen dira generoaren banaketa errespetatuz, jakinik gainera USAID nazioarteko laguntza ere ukatu zaiela Trumpen erabakiz. Egoera larria dela ezin uka. Talibanen silogismoari jarraikiz, mediku femeninoak baizik ez dira emazteez eta hurrez axolatzen ahal, emazteak kendu zituzte ospitale eta arreta zentroetatik; beraz, inor ez dago Afganistango jendaldearen erdiaz arduratzeko. *Ginezidio* bat ari da gure begien aitzinean gertatzen. ●